



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

“Non bis in idem”, UPV/EHUko talentudun gazte bik pintura figuratibora egiten daben itzulbidea

- **Ander Gómez eta Nekane Manrique artistek batera egiten daben proiektu honetan gizakiaren figurea ardatz daben 18 artelan ikusi ahal izango dira, maiatzaren 15ean hasi eta hilebetean, astelehenetik barikura 8:00etatik 20:00etara eta 14:00ak arte zapatueta. Erakusketea Bizkaiko Batzar Nagusien erakusketa aretoan izango da (Hurtado de Amezaga kalea, 6 – behe solairua–). Sarrera doan izango da.**

Bilbon, 2015eko maiatzaren 14an

Unibertsitateko ikasleen talentua bultzatzearren Bizkaiko Batzar Nagusiek eta UPV/EHUko Arte Eder Fakultateak daben lankidetzaren esparruan sortu da erakusketa barriau, hain zuzen be Ander Gómezen y Nekane Manriqueren 18 artelan biltzen dituana. “**Non bis in idem**” izenburua daroan erakusketa honetan artista biok jarrera artistiko eta kontzeptual ezbardinetatik abiatuak, eta gizakiaren figurea ardatz dala, Bilbo erdira ekarri dabe arte figuratiboa, gaur egun indarrean diran erakusketa moldeekin zelanbaiteko apurketea eginik.

Bai Ander Gómezek bai Nekane Manriquek pertsonen arpegiak eta gorputz-zatiak pintaten ditue, eta ezagutzeko moduan egiten dabe, modu hurbilean eta, itxura baten, era atseginean. Hor amaitzen da komunean daukien guztia. Iñaki Bilbao irakaslearen ustez —bera da erakusketearen komisarioa— “ezbardintasunak asko dira, agirikoak eta, aldiberean, ez horren nabariak”.

Nekanerentzat mass media eta publizitatearen lengoaiatik dator irudia, modak eskainitako, ia kanon bezala inposatutako, eme-edertasunaren estereotipoetatik; Anderrentzat barrokotik erromantizismora bitarteko erretratu-tradiziotik dator, Caravaggio, Reynolds edo Ingres ikusmiran dituala.

Bilbao irakasle eta komisario jaunak ezbardintasunak ikusten ditu artista bakotzak irudikatzen dituan figurakaz dituan inplikazio modu eta mailetan. Nekanek begirunez, laztantasunez esango geunke, tratatzen ditu bere andra-figurak, eta Anderrek, barriz, arpegiak desitxuratu egiten ditu, esperpentoraino iritsi barik, baina kirurgi plastikoa egiten deutse, krudeltasun puntu bategaz, figurei gorentasun eta gelditasun klasikoa kendu eta inozo itxura halakoa emoteraino.

Giza-figureari buruzko hausnarketa eta errepresentazio moduan, gaurregungo ikuspegi subjektiboaren bitartez aurkezten dala dino Ander Gómezek berak. Aurretik egon dagozan koadruak jabetzen da, eta zeharo bestelakotzen ditu; esangura barria emoten deutse, irudikari kolektibotik kanpoko irudiak sortu arte, nahiz eta oraindik, era xumean bada be, irudikari hori gogora ekarri.

Nekane Manriquek, bere lanaz diharduala, hauxe dino: “Nire margoak subjektuaren eta norberaren nortasunaren erlazinoan miatzen saiatzen dira. Eme-erretratuak espazio neutroetan, zirrara anbiguoak sorrarazten saiatuz, lanaren irakurketa edegia bilatuz, proiektuari drama erromantikoa, psikologikoa eta abarrekoak erantsita.”



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

“Non bis in idem”, una vuelta a la pintura figurativa de la mano de dos jóvenes artistas de la UPV/EHU

- **El proyecto común de Ander Gómez y Nekane Manrique concentra 18 obras que tienen como “leitmotiv” la figura humana. La muestra estará abierta a partir del 15 de mayo durante un mes, de lunes a viernes, en horario de 8 a 20 horas, y los sábados hasta las 14 horas, en la céntrica Sala de Exposiciones de Juntas Generales (C/Hurtado de Amezaga, 6 – planta baja). La entrada es libre.**

Bilbao, a 14 de mayo de 2015.

En el marco de colaboración que mantienen las Juntas Generales y la Facultad de Bellas Artes de la UPV/EHU para descubrir el talento de alumnos universitarios, germina una nueva exposición con 18 obras de Ander Gómez y Nekane Manrique. “**Non bis in idem**” es un encuentro dialogado a dos voces entre artistas que toman como eje principal la figura humana desde dos posiciones artísticas, conceptuales y técnicas diferentes, aunque las dos adscritas a la llamada pintura figurativa, cada vez menos presente en el mundo de las exposiciones en donde prima el arte contemporáneo.

Tanto Ander Gómez como Nekane Manrique pintan caras y detalles del cuerpo de personas y los dos lo hacen de manera reconocible, cercana y aparentemente amable. Ahí acaba la coincidencia de sus trabajos. Las diferencias son “muchas, notables y sutiles”, según el comisario de la muestra el profesor Iñaki Bilbao.

Las imágenes de Nekane Manrique provienen de ciertos aspectos del lenguaje de los medios de masas y de la publicidad, de los estereotipos de la belleza femenina ofrecidos, casi impuestos por la moda como supuestos cánones. Por su parte, Ander Gómez sorbe de la tradición retratista del barroco al romanticismo, con referencias a Caravaggio, Reynolds o Ingres.

El profesor y comisario de la muestra encuentra también diferencias en el uso de los recursos técnicos, y en sus formas y grados de implicación con la figura a representar. Manrique trata a sus estereotipos femeninos –según Bilbao- “con respeto, hasta con cariño”, y Gómez deforma las caras sometiéndolas a una cirugía plástica levemente cruel, que las despoja de su solemnidad y serenidad clásicas, y las lleva a la senda de la perplejidad.

Ander Gómez presenta la figura humana con una visión “subjetiva y actual”, según él mismo. Se apropia de cuadros preexistentes que después modifica, dando un nuevo significado a un tipo de imágenes que dejan de pertenecer al imaginario colectivo, pero que aún remiten, de manera velada, al mismo. A través de distorsiones, deformaciones y reconstrucciones, genera nuevas perspectivas narrativas.

“Mi serie de pinturas trata de indagar en la relación del sujeto con el propio yo”, señala, por su parte, Nekane Manrique. Retratos femeninos en espacios neutros en donde procura generar sensaciones ambiguas y una lectura de la obra abierta al incorporar al proyecto pictórico diferentes dramas.